Mintzamenaren arloko errehabilitazio zerbitzua.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Mintzamenaren eta komunikazioaren patologien errehabilitazioa xede duten esku-hartzeetarako zerbitzua.

Onuradunak: 16 urtetik gorako pertsonak, ezgaitasuna dutenak.

Jasotzeko baldintzak:

- Nafarroan bizitzea.
- Eskolatuta ez egotea.
- % 33ko edo hortik goitiko elbarritasuna aitorturik edukitzea, eta komunikazioko ezgaitasunen bat, % 24koa edo goragokoa.
- Tratamendurik ez jasotzea beste zerbitzu publikoetan edo Nafarroako Mendekotasun Agentziak diruz lagundutako beste entitateren batean.

Zerbitzua irekita: Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

Arreta emateko tokia: Iruña.

Zerbitzuaren intentsitatea: Programa harrera eta lehen balorazio fasearekin hasiko da, eta banakakoaren arreta plan bat diseinatuz, laguntza beharrak, helburuak, bete beharreko jarduerak eta horien intentsitatea barne hartuta.

- Hamabostean behin, 45 minutuko saio bat.

Emateko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Ez.

Jarduteko eremua:
Nafarroako Foru Komunitatea.